

BherriLab Dossierra

HERRITARREN BERRIKUNTZAKO BHERRIA LABORATEGIAK
EKIPAMENDU PUBLIKOEN KUDEAKETA KOMUNITARIORAKO BIDEAN

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGUKO ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

**BOLUNTARIOTZAREN
EUSKAL KONTSEILUA**



**CONSEJO VASCO
DEL VOLUNTARIADO**

AURKIBIDEA

1. BHERRIAK BHERRILAB BULTZATZEN DU
2. ZER DA BHERRILAB?
3. BHERRILAB 1. EKIPAMENDU PUBLIKOEN KUDEAKETA KOMUNITARIOA
 - 3.1 Abiapuntua
 - 3.2 BherriLaberako lehen erronka
 - 3.3 Espero diren emaitzak
 - 3.4 Nork parte hartzen du
 - 3.5 Nola garatzen da BherriLab
4. NOLA PARTE HARTU BHERRILAB 1-ean

BherriLab berrikuntza publiko-sozialera bideratutako herritarren laborategia da, eta horren erronka nagusia da Euskadiko ekipamendu publikoen kudeaketa komunitarioa jorratzea. Laborategia erantzukizun teknikoko eta politikoko pertsonentzat eta administrazio publikoko juristentzat nahiz ekipamendu publikoen gobernantza komunitik gauzatzen duten agenteentzat eta ingurune akademikoko eta ikerkuntzako pertsonentzat da; 2018ko azaroa eta abendua artean garatuko da.

1. BHERRIAK BHERRILAB BULTZATZEN DU

Bherria harreman eta lankidetzara publiko-sozialerako modu berri irekiagoak, parte-hartzaileak eta erantzunkideak aztertzeraz eta sustatzeraz bideratutako programa da. Bherriak, batik bat, topaketarako eta ikasketarako ekipamendua izan nahi du, administrazio teknikeri eta politikarien eta herritarren artean partekatua. Programa Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiken Saileko Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak eta Boluntariotzaren Euskal Kontseiluak bultzatzen dute, eta 2017ko irailean hasi zen garatzen.

Orain, Bherriak **BherriLab** izeneko formatu berria aktibatu du, berrikuntza publiko-sozialera bideratutako herritarren laborategia, komunitate bateko kide ezberdinen artean era askotariko erronka zehatzak jorratzeko. Gaiaren inguruan irtenbide posibleak bilatu nahi dira, eta, arrakasta izanez gero, eskala handiagoan aplikatu eta/edo beste ingurune batzuetara transferitu. Hortaz, BherriLaben helburua da gauzatzeraz iritsiko diren aukerak aurkitzea, agente ezberdinak elkarrekin elkartzeagatik.

2. ZER DA BHERRILAB?

BherriLab bat da erronka bera duten agente ezberdinak topatzeko eta elkarrekin lan egiteko egoera. Egoera hori ahalik eta baldintza onenetan gerta dadin, BherriLabek adimen kolektiboan, baterako diseinuan, lankidetzako esperimentazio irekian eta konfiantzako harremanen sorreran oinarritutako printzipioak, prozedurak eta erremintak ematen ditu.

BherriLab bakoitzak formatu ezberdina hartzen du jorratu beharreko erronkaren izaeraren, duen garapen-fasearen, parte-hartzaile motaren eta kopuruaren eta laborategirako jarri beharreko denboraren eta baliabideen arabera. Oro har, BherriLab batek hiru une konbinatzen ditu: 1) jorratzeaz dagoen erronkaren gaineko informazioaren eta esperientzien inguruko diagnostikoa eta trukea; 2) irtenbideen proposamena, diseinua eta prototipatua; 3) lortutako emaitzak partekatzea eta egiaztatzea. Gainera, erronka bera jorratu eta hobetu daiteke segidako laborategietan.

3. BHERRILAB 1. EKIAMENDU PUBLIKOEN KUDEAKETA KOMUNITARIOA

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politika Sailak, harreman publiko-sozialerako modu berriak ikertzen eta sustatzen jarraitzeko helburuarekin, BherriLaberako lehen erronka bezala, ekipamendu publikoen kudeaketa komunitarioa jorratzea proposatu du. Alderdi horrek lotura estua du [Bherriaren Dekalogoko](#) 8. puntuarekin, administrazioaren "kode burokratiko irekitzeko" eta prozedura esperimentazioaren zerbitzura jartzeko premia aipatzen baitu, bermeei eutsiaz.

3.1. ABIAPUNTUA

Ekipamendu publikoen kudeaketa komunitarioak, kudeaketa publikoaren beraren osagarri gisa, ibilbide garrantzitsua du Euskadin eta, azken urteetan, arrazoi ezberdinak direla-eta —krisi ekonomikoa, herritarren proiektuen heldzea edo aldaketa politikoak—, garrantzia eta energia berriak hartu ditu.

Gero eta udalerri gehiagotan, ekipamenduen zein horien programazioen gaineko kudeaketa-esperientziak daude, herri administrazioaren eta subjektu instituzional legitimo eta erantzunkide bezala beren burua aldarrikatzen duten herritar autoantolatuen artean harremanak izateko modu berriak errazten dituztenak. Modu horretan, harreman publiko-sozialerako eredu berriak sortzen dira, gaur egun nagusi den eredu publiko-pribatuarekiko oso kontuan hartu beharreko aukerak sortzen dituztenak; eredu publiko-pribatu horretan, administrazioek ekipamendu publikoak lizitatzen dituzte hirugarrenek ustiatzearen.

Ekipamendu publikoen kudeaketa komunitarioarako proiektuen berezitasuna da, haien jatorria —lagapena, okupazioa, jabetza komunitarioa,...— edo erabilera —kulturala, soziala, lan-arlokoa, elkarbizitzakoa,...— kontuan hartu gabe, baliabide edo ekipamendu baten inguruan antolatutako pertsonen komunitateak existitzea. Itzulera sozial nabarmena duten proiektuak dira, inpaktu positiboa eragiten dutenak garapen komunitarioarekin zerikusia duten alderdietan; hala nola, gizarte-kohesioa, bizi-kalitatea, elkarte-ehuna indartzea, tokiko merkatuen eraketa edo kulturartekotasuna eta belaunaldiartekotasuna.

3.2. BHERRILABERAKO LEHEN ERRONKA

Arrakasta-kasu partikular eta hautazkoez haratago —kasu bakoitzean era batera jokatzeko da, denentzako arau edo erregela bat jarraitu gabe—, BherriLab 1en erronka da proposamenak egitea —tartean dauden agente guztien artean—, udal-politiketan sartu ahal izateko, **ekipamendu publikoen kudeaketa komunitarioko proiektu berriak garatzea erraztearren.**

Laborategian lanerako lau ardatz jorratzen dira, ekipamenduak bultzatzerakoan herri administrazioaren eta herritarren arteko lankidetzarako esparruak indartzen jarraitzeko dokumentuaren zirriborroa egiteko:

1. **Esparru juridikoa.** Kudeaketa komunitarioko prozesuak arautzen dituen esparrua definitzea: pertsonalitate juridikoak, norgehiagoka librea, lagapen-hitzarmenen iraupena, ekipamenduak erabiltzeko argibideak, e.a. Beharrezkoa da hitzen glosario bat egitea, erraz ulertzeko modukoa, prozesuetan parte hartzen duten pertsona guztientzat.
2. **Lankidetzak.** Herritarren eta herri-administrazioaren arteko harremana, batzuetan, logika oso teknikoetatik eta/edo burokratikoetatik bideratzen da. Bitartekaritza-formulak eta agente ezberdinen arteko zuzeneko komunikazio-espazioak jorratu nahi ditugu, proiektuak errazago garatze aldera.
3. **Lagapenerako eta esleipenerako irizpideak.** Ekipamenduen lagapenean bidegabekeria eta esleipen interesatua, oportunitate eta/edo praxi txarrekoa saihesteko irizpideak ezarri nahi ditugu, aldi berean herritar kalteberago, informalago edo nahasiagoari sartzen utzi ahal izateko. Azken finean, askotariko aukera zorroztasuna mantenduaz.
4. **Kudeaketa komunitarioaren inaktua ebaluatzeko adierazleak.** Garrantzitsua da kudeaketa komunitarioko proiektuen itzulera soziala batik bat kualitatiboki neurtu eta ebaluatu ahal izateko adierazleak egitea. Adierazle horiek sar daitezke ekipamenduak taldeei, erakunde sozialei, eta abarri lagatzeko irizpideetan.

3.3. ESPERO DIREN EMAITZAK

Lan-prozesuan zehar, BherriLab 1-ean esperotako emaitzak esperientzia zehatzen eta hurbileko edo beste leku batzuetako testuinguruaren arteko gurutzatzetik sortuko dira. Hauek izango dira hiru emaitza nagusiak:

- > Ekipamenduen eta baliabideen kudeaketa komunitarioan interesatutako agente publiko-sozialen sarea eraikitzea. Askotariko sarea, potentzial handikoa, ezagutzen eta esperientzien laguntzarako, kontsultarako eta trukerako.
- > Protokolo bat egitea, ekipamendu publikoak lanerako lau ardatzaren inguruan lagatzeko jarraitu beharreko urratsak ezarriko dituen. Gutxienezko protokoloa, handitzeko aukera eta guzti dituen, baina ulerterraza, eta operatiboa eta autonomoa aplikazio praktikoan.

- > Baliabideen katalogo administratiboa, juridikoa eta legezkoa eta araudi-emailea egitea, ekipamendu publikoen kudeaketa komunitarioko premiei eta eskaerei azkar erantzun ahal izateko.

Laborategi honetan beste emaitza batzuk ere esperoko dira:

- > Ekipamendu publikoen kudeaketa komunitariorako alderdi erabakigarriak identifikatzea.
- > Ekipamenduen kudeaketa komunitarioko proiektuak garatzea galarazten duen egungo administrazio-esparruaren eragozpen nagusiak aitortzea.
- > Autonomia Erkidegoko lurraldeetan esperientzia aktiboak ezagutzea eta hedatzea eta beste latitude batzuetako esperientziekin egiaztatu ahal izatea.

3.4. NORK PARTE HARTZEN DU

Herritarren, udal-teknikarien, arduradun politikoen eta adituen arteko konexio-katea medio, askotan, ezinezkoa izaten da ekipamendu publikoen kudeaketa komunitariorako akordioak lortzea. BherriLab 1 aukera ezin hobe da agente horiei harremanetarako denentzako ekipamendu bat emateko, lekuan bertan eta proiektu bakar batean ardaztuta, oso zaila bailitzateke biltzea. BherriLab 1-ean garrantzitsua da era honetako agenteek parte hartzea:

- > Toki administrazioko pertsonak, erantzukizun teknikoa eta politikoa dutenak, kudeaketa komunitarioko proiektuak abian edo egitear dituztenak —emakumeen etxeak, ekipamenduei erabilera emateko parte hartzeko prozesuak, e.a.—. Atal honetan zehazki, Bherria 2017an parte hartutako pertsonekin pentsatu dugu, era horretako proiektuetan esperientzia edo interesa dutenak.
- > Toki administrazioko pertsonak, erantzukizun teknikoa dutenak, ondarea, hirigintza edo kontratazioa eremuetakoak, edo berme-funtzioa dutenak —idazkaritzak eta kontu-hartzailetza—.
- > Toki administrazioko pertsonak, administrazio-zuzenbidea ezagutzen dutenak, sormen-zuzenbideko jarduerak egin ditzaketenak.
- > Ekipamendu publikoen gobernantza komunitetara jada jorratzen ari diren agenteak —okupatutako zentro sozialak, ekipamendu publikoak kudeatzen dituzten elkarteak, kudeaketa komunitarioaren errealitatera hurbiltzen diren taldeak—.
- > Ingurune akademikoko eta ikerketako agenteak.

3.5. NOLA GARATZEN DA BHERRILAB

BherriLab 1-en lan-prozesua parte hartzen duten pertsonen ezagutzatik eta esperientziatik abiatzen da.

Lankidetzako erremintak eta lanerako metodologiak erabiltzen dira, baterako sorkuntza, sormen aplikatua eta adimen kolektiboaren erabilera indartzen dutenak.

Eta aurreko puntuan aipaturiko profilen inplikazioa bermatu nahi du. Horretarako, parte-hartze dibertsifikatu, eskuragarri eta inklusiboko formulen gradienteak sartzen du; hain zuzen ere, ondoren agertzen den jarduera-programan zehazten dena:

> HIRU SAIO PRESENTZIAL:

- **1. Saioa: ‘Ez utzi ezer esan gabe’ > Diagnostikoa eta informazioaren trukea**
2018ko azaroak 30. 09:00-13:00ak bitartean. Plateruena (Landako Etorbidea, 4A, 48200 Durango, Bizkaia) (60 pertsona).

BherriLaben aurkezpen publikoa eta abian jartzea.

Deialdian sartuko den aurretiko materialetik abiatuta —erronkari buruzko dossierra eta jorratu beharreko lau ardatzak—, proposaturiko erronka zehaztu eta elkarren artean egoera-diagnostikoa egiten da. Diagnostikoan, deskribaturiko lau ardatzetako arazo ohikoenak sartuko dira, gehi bosgarren ardatz irekia, hasieran proposaturiko esparruan kokatu ezin badira ere, erronka jorratzeko garrantzitsutzat jotzen diren ekarpenak bilduko dituenak.

Saioan, ondorengoak burutuko dira: agenteen arteko elkarriketa dinamikoa eta harremana; kasuistiken maparen baterako sorkuntza, adibide zehatzak eta beste ekipamendu batzuen erreferentziak; gaia elkarren artean zentratzen, hautatzen, osatzen laguntzen duten metodologiak erabilera.

- **2. Saioa: ‘Irtenbideak ikertzen’ > Protokolorako ekarpenen proposamena, diseinua eta prototipatua**
2018ko abenduak 18. 09:30etik 17:30era. (20 pertsona).

Prozesuaren barneko lan-saio trinkoena, bideratzen joateko, espekulatibotik zehatzera igarotzeko. Helburua da proposamen bat egitera iristea, gainerako taldeekin partekatu ahal izateko; alegia, protokoloan klausula moduan sartzeko irtenbideak zehaztea.

Lauzpabost lagunekoko talde txikietan egingo da lan, ardatz bakoitza sakontzeko. Taldeak hainbat metodologia izango ditu, elkarrekin pentsatzen eta proposatzen laguntzeko: elementu zehatzen diseinua, fitxak eta eskemak egitea, rol-jolasen edo prototipatze-jardueren bidez eraikitzea eta egiaztatzea, besteak beste.

- **3. Saioa: Lortutako emaitzak partekatzea, egiaztatzea eta erabiltzeko modu-aukerak / hurrengo urratsak**
Data zehaztu egin behar da. Saio irekia (60 pertsona).

BherriLaben emaitzak partekatzeko saioa izango da eta azken ekarpenak jaso eta protokoloaren erabilera posibleak edo hurrengo urratsak ezartzeko unea.

Prozesuaren laburpen soil bat egingo da eta emaitzaren aurkezpen xehatua. Amaitzeko, esperientziaren ebaluazio txikia egingo dugu denon artean.

OHARRA:

Topaketen azken kokapena definitu gabe dago. Modu berean, behin betiko ordutegiak ekipamenduen erabilgarritasunaren eta saioen izaeraren arabera zehaztuko dira.

> KANPO ETA BARNE KOMUNIKAZIOA (ZEHARKAKOA):

- Komunikazioaren zeharkako geruza, berez BherriLaben esperimentazio-prozesuan bertan sartzen dena.
- Gertatzen ari denaren informazioa ematea eta ekipamendu publikoen kudeaketa komunitarioan interesatuta dauden pertsonekin konektatuta egotea.
- Denentzako kontakizuna bilatzea, edukia modu osagarrian sortzea, laborategia era presentzialeaz haratago zabaltzea, sare sozialen bitartez edo gertatutakoa kontatuaz eta dokumentatuaz.

> SAIOEN ARTEKO LANA:

- Ondorengoak eskatzen dituzten eginkizun ez presentzialak: ikerketa-lanak, dokumentazioa eta erreferentziak bilatzea, informazioak eta baliabideak prozesatzea eta emaitzak paketizatzea.
- Eginkizun horiek saio bat hurrengo saioarekin konektatzen dute, prozesuaren sormen-tentsioari eusten diote, eta parte-hartzaileen arteko konexioa eta erronkaren ebazpena errazten dute.
- Lanak BherriLabeko barne-taldeak —dokumentuak eta emaitzak antolatzea, txostenak eta lanerako materiala prestatzea, parte-hartzaileei galderak egitea,...— nahiz saioetan inplikaturiko pertsonak —materialak irakurtzea eta kontrasteak eta *feedback-ak* egitea, erreferentziak eta ekarpen dokumentalak bilatzea, e.a.— beren gain hartzen dituzte.

4. NOLA PARTE HARTU BHERRILAB 1-EAN



Irakurritakoa interesatzen bazaizu, bete ezazu [online eskabide-orri](#) hau zure profila ezagutu dezagun eta, hala izanez gero, zure egitasmoa eta interesak ere bai. Zurekin jarriko gara harremanetan parte-hartzeari buruzko informazio gehiago erraztearren.

Aurreinskripzioen epea azaroaren 22an bukatzen da, 23:59an. Edozein argibiderako, mesedez bidali ezazu mezu bat bherria@euskadi.eus helbidera.